



OT-004/07 eta 006/07 -PTS-A IBAIAK ETA ERREKAK - ISURIALDE KANTAURIARRA ETA MEDITERRANEOA

TOMÁS ORALLO QUIROGAK, EUSKAL HERRIKO LURRALDE ANTOLAKETAREN BATZORDEAREN IDAZKARIAK

ZIURTATZEN DUT: Euskal Herriko Lurralde Antolaketaren Batzordeak maiatzaren 22an Vitoria-Gasteizen egin zuen 2/2013 bilkuran, besteak beste, ondoko erabaki hau hartu zutela, aho batez, kideen gehiengo osoa eratzen zuten bertaratutakoek:

“I.- Lurralde-antolamenduaren arloan:

I.- “Euskal Autonomia Erkidegoko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko Lurraldearen Arloko Planaren 1. Aldaketa (Isurialde Kantauriarra eta Mediterraneo)” espedienteari aldeko txostena egitea, behin betiko onespeneraren aurretik, Euskadiko Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legeko Lehen Xedapen Gehigarrian eta 13.8 artikuluan; eta, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduko Batzordearen funtzioak, eraketa eta funtzionamendu araubidea finkatzen duen irailaren 9ko 263/1990 Dekretuko 2.1 artikuluan, azaroaren 2ko 397/1999 Dekretuak aldarazitakoan, ezarritakoari jarraiki.

II.- Espedientearen araudian ondoko zehaztapen hauek sartzea:

1.- C1 eta F2 ataletan ondokoa gehitzea:

Aireportu-sistema orokorren eremuan, Donostia, Bilbao eta Vitoria-Gasteizeko aireportuetan erabilera publikoa baino ez da onartuko eta horietan arlo aeronautikoko xedapenak lehenetsiko dira, batez ere, aireportu horien plan zuzentzaileek jasotakoak. Era berean, aireportu horien inguruan baimendu ahal diren eraikuntza eta instalazioek zortasun aeronautikoen inguruan indarrean dagoen araudia bete beharko dute.

2.- B.4. Puntua- (15. or.)

Eremu Garatuetako Tartearen definizioan

EZABATU zazpigarren lerroan: ... **edo urbanizaezina** ...

3.- E.3. Puntua- (46. or.)

Orrialdeko bigarren paragrafoa edo puntuaren zazpigarrena

ONDOKO ZEHAZTAPENA TXERTATZEA: ... ibilgu-trazaduraren zuzenketa

planteatzea, interes bereziko elementu naturalak dituzten goiburuak alde batera utzita, beharko da ...

III.- Espediente hau Gobernu Kontseiluari aurkeztea, 4/1990 Legearen 13.9 artikulua zedatutakoarekin bat etorritik behin betiko onetsi dezan.

II.- Abiazio Zibilaren arloan:

Abiazio Zibilaren Zuzendaritza Nagusiak 2013ko apirilaren 19an egindako txostenaren zehaztapen lotesleak kontuan hartu behar dira.



III.- Espediente hau behin betiko onartzeko eskumena duen organoari ondokoa bidaltzea: URA-Uraren Euskal Agentziak egindako txostena (I. eranskina) eta Abiazio Zibilaren Zuzendaritza Nagusiak egindako txostena (II. eranskina). Agiri horiek ziurtagiri honi erantsita doaz.

Eta horrela jasota gera dadin, ziurtagiri hau egin eta sinatu dut, bilkuraren akta onetsi baino lehen, Vitoria-Gasteizen, 2013ko maiatzaren 22an.

IDAZKARIA



Izpta.: Tomás Orallo Quiroga